

ANAITASUNA

BIZKAIA



189 zenb. 1970, * Maiatzak 30
Apartado 17 * GALDAKANO

Literatur tradizio baten bila

HEMEN EUSKERA BATUA

Munduko hizkuntza guztiek, beren biziaren memento* batean, edertasun eta kategoria handiko lan batzuk eduki dituzte. Italian Danteren denboran, Espainian Cervantesen garaian, Alemanian Luterok Biblia alemanez itzuli zuenean, Ingalaterran Shakespearen sasoiak. Pertsonaia* guztiok, nolabait, hizkuntza sagaratu eta altxatu egin zuten literatur mailaraino; eta ondorengoek ba zuketan, gauza bat nola esan jakin gura zutenean, nora joan eta non ikasi.

Idazle zaharrok dira Herri guztietan, hain zuzen, literatur hizkuntzaren oin harria eta sostengua, hibaia lehena iturriak bezala.

Bai, esemplo batez esateko, literatura hibai baten pare da. Hasi-keran urri eta lasterra da, eta lurra gastatuaz bere bidea egiten du. Bide honetan beste mila iturri eta errekatxoak ur laguntza hartzen du, eta honela ba doa handituaz eta aberastuaz. Azkenez hibai nagusi eta zabal bat egiten da; baina ba du, hala ere, etorki eta iturri bat, eta handik datorrela ezin uka.

Literatura bera ere halakoxea da. Urteetatik zehar liburu eta obra berrien eraginez ugaltu eta aberastu egiten dela ezin uka, baina ba zuen aintzinekoengan bere lehen pausoa. Hau hizkuntza guztietan gertatzen baldin bada, zergatik ez da euskeraren kasuan gertatu?

1900-garren urterarte, tradizio hori biziki sentitzen zen gure orduko idazleen artean. Bizkaitarrek, ttantoka izan arren, polito erabiltzen zituzten Gipuzkoako hitzak eta baita Lapurdi eta Nafarroakoak ere. Gipuzteke, halaber*, bizkaierazko eta lapurtar kutsua agertzen zuten po-

liki, eta baita beste guztiek ere. Joera hark iraun balu, euskeraren batasuna erdi eginik egonen* lizateke sasoi honetarako; baina, zori-

tik, azken urteotako berrikeriak, jatorrenak zirelakoan (Bizkaiko "dodaz, dozuz...", esate baterako) erabiltzen ziren bakarrik, beste forma zabalagoak hauzokoenak bakarrik zirela pentsatuaz. Liburu zaharrak, irakurri gabe, kondentatu egin ziren; eta beraiek literatur bidea erakusten zutenak izanik, haiek gordetzean, bidea galtuta, bakoitzak bere kontutik ibiltzen hasi zen.

Egoera larri honen ondorioak gaur ikus ditzakegu oraino. Aintzineko hari argigarriari ez segitzeagatik, euskal literatura itsuka dabilkigu. Azken urteotan, Bidasoaz honazko partean, Gipuzkoako euskerak oso fama handia hartu du, eta orain arte bizkaitar askok gipuzkeraz idatzi izan dugu. Baina batasunaren ordua jota dago. Arzoa hobeki estudiatu behar dela ta, hasi izan gara literatura zaharra aztertzen eta irakurten. Eta hona hemen gauza harrigarri bat! Gipuzkerak ez du berrehun urteko tradizio eskas bat besterik; bizkaiera bera bezain suster laburrekoa dugu.

Lapurdin, berriz, literatura orain larehun urte jaio zen, eta Bizkaiko eta Gipuzkoako liburuak berak baino obra ederrago batzuekin hornituta dago. Euskeraren benetako maisuak beste aldeko euskaldunak izan zaizkigu, gaur Frantziar bizi direnak; haiek bai markatu zeukutela bidea literatur kontuan. Eta non dago literatura polit eta aberast hori? Zergatik ez da gure artean ezaguna? Hau bai itaun edo galdera interesgarria!

Baina utz dezagun urrengo lan baterako erantzutea.

Xabier Kintana

G V E R O
B I P A R T E T A N
partitua eta berezia,
L E H E N B I C I C O A N
E M A I T E N D A, A D I T C E R A,
c e n b a t c a l t e e g u i t e n d u e n, l u g a -
m e n d u t a n i b i l t z e a c, e g u i t e c o e n
g u e r o c o u t z t e a c.

Bigarrenean gidaicenda, eta aintzimatzen, luca menduac uscirte, bere bila, bere eguin bi, deari, lothra nabi çalcana.

Escritura saindutie, Eliçaco Doctor etaric-
eta liburu debocinozco etaric. Axular Sa,
raco errotorac vildua,

*Ne vades comersi ad Dominum, & ne differas
de die in diem, Eccles. 5.*



B O R D E L E N,
G. M I L A N G E S Erregueren Imprima-
gaillea baitan.
M. D. C. X L I I I.

txarrean, aspaldidanik zetorkigun-
hari hura, literatur tradizio hura,
orain hirurogei ta hamar urte hau-
tsi zen gure artean.

Euskera garbia zela eta ez zela, bakoitzak bere herriko usadioan idatzi nahi ukan* zuen, albokoari jaramonik egin gabe. Latinetik datozten hitzak, sarri askotan, Euskal Herri osoan berdinak dira; eta euskera zaharrekoak, ostera, gauza bera esateko oso diferenteak. Beste-

BERMEO

Barkatuko deustazue, orain emoten deusuedazan bariak apurtxu bat zaharrak badira.

Aste Santuko prozesinoak kalerik kale ospatu genduzan, beste urteetan legez. Ostegun* Santuan, arratsaldeko 6 t'erdietan urten genduan Santa Maria elizatik. Jende gutxi. Emakumeak polito, ez askorik baina. Gizonak gutxi.

Ostirale* Santuan, goizeko 7-retan, Kuruzbidea egiten asi ginan Kruzioako elizaxutik Santa Maria elizaraino, Don Jose abade jauna eta frantziskano komentuko fraile bat zuzendari zirala. Arratsaldeko 6-etan barriro prozesino. Jende asko, euri ta inatazi egin arren.

Pazko igandean*, Santa Maria elizan, ume talde eder batek egin eban lehenengo komunioa. Urrango igandean bardin, Santa Eufemia elizan. Baina arritzekoa izan zan, goizean jaunartu eta arratsaldean ia umerik be ez joatea errosarioa errezatzen, betiko ohiturea izan dan legez. Nok ote dauka errua? Nire ustez, oker ez banago, gurasoak. Ze, nire umezaroan, gurasoak esanda joaten ginan arratsaldeko errosariotara. Zorionak ume guztiei, eta kristinau zintzoak izan daitezala.

Gotzon Azpeitia

AMOROTO

Gizon indartsuen eta asto proben erria bakarrik ez da Amoroto. Maisu eta alkateagaz, euskera arloan, bere kezka izan ditu; baina bertako baserritarrek gorabehera horreen gaintik jarri dira. Gaur egun ba ote dago Euskal-erri osoan Amoroto lako erririk? Hara! Lekeitio ondoko erritxu honen etxeak euskal ikastola bihurtu dira. Santurtzeko umeak mordoka etorten dira bertora, hango ikastolan erdi ikasitako euskera motela indartu ta obeagotuteko eta sustarretik euskaldun diranen artean biziteko.

Ordainez, sardina presku errekaez eta ardo ugariagaz atondutako bazkariak dirala, edo, lehenengo igandean* legez, Portugaleteko "Danok Bat" zortzikoteak erriarentzat abes-uriko kantak dirala, pozgarritzko batasun bat sortu da Amoroto ta Santurtzeren artean. Ez dago euren artean ez señoritorik ez baserritarrik, euskaldun adiskideak baino. Amorotokoak lako baserritar asko bagenduz, euskereaz gutxiago, baina euskeraz gehiago egingo litzake Euskal-errian.

LEKEITIO

Aize bolada indartsua asi da gure erri honetan. Hara: Migel Arrieta egunari orduak kendu ezinik dabil, bere-gana jotzen daben hainbeste umeri txistu, kitarra eta abar erakusteko. Ume ta gazte, neska ta mutil. Erakuste honetan dago gizon gazte honen ogibidea.

Jose Luis de la Torre mutil gazte jatorrak ehun ume inguru darabiltza, euskal dantzak irakasten.

Juan Maria Sainz de Ezkerrak be, holako irakastaldiak emoten deutsoz dantzari ta txistulari mordo bateri, nahiz eta bera Bizkaiko erdal aldekoa izan.

Kaxarranka izeneko Ayuntamientoaren taldea be bizkor dabil lanean.

"Lenengo Erritarrak", Tolosan, oso txalotuak eta sari-tuak izan dira.

Ikastolako umeen "Azku" taldeak poza ta alaitasuna zabaldu eban, Gernikan izan zan jaialdian. Pozgarria benetan, umeen mezan ikusi genduan: umeak eurak opariak eskaintzen*, irakurgaiak leidunt, noiz behinka kitarra ta txistu soinuaz abestuten, eta euren bidez jendetzak elizara joaten.

Argi ikusten dogu, folklore arloan udabarri loretsu ta ugaria daukaguna. Gure zorionik beroenak honetan diharduenei.

Baina beste guztiok zer egiten dogu? Zer, ikastolako egoera gorria ikusirik? Zer, arrantzaleen situazioaren aurrean? Zer, gazteen nahasteak konpontzeko? Zer, sasoiokoen ardurabakotasunari erremedioa ipinteko? Zer, erlejino bitzita sakon baten alde? Zer, erriko ondoeza arteztuteko? Guk, beste guztiok, zer egiten ote dogu?

ARRATIA

Aspaldi honetan arrituta nago, Arratian jazoten dan fenomeno bategaz; eta beste toki batzuetan bere, antzera dalakoan nago.

Mutil gazteak ez dabe ezetariko konpromisorik gura, soldadu denborea bete arte behintzat. Bildur aundia dauke. Mutil zintzo asko gorriak pasatzen dagoz soldadutzan, euren erri edo erri ingurutik bidaltzen dituen informea-kaitik. Edozegaitik emoten ditue behar ez diran informea-k; esaterako, Arratiako erri batean abadearen laguna izatea-gaitik bakarrik.

Holako gauzak ikusita, ez ote da normala, ardoagaz, deporteagaz eta antzekoakaz bakarrik gazteen buruak be-teta egotea?

Soldadutza aurretik gure mutilak ezer bere ez edo gauza gutxi egin ahal badabe, holako eskolea ikasita, soldaduen artean ezer egiteko gogorik eukiko ote dabe?

Zamakolatarra

ARRIANDI

Azken bolada honetan, Arrianditarrok hauxe epizuten izan dogu: "Zuenak egin dau, mutilak! ez dago zereginik!"

Esakera honek gazte talde baten belarriak minez zauritu dituala esango neuke. Orain dala denbora gutxi, Oromiñon Igorretako Kofradien eguna ospatu genduan; eta, Arriandi bertako kofradia bat izanik, jendeak ez ei eban behar dan legez erantzun euren zereginetan.

Baina gauzak aurrerantzean be holan izango diranik ez dot uste, eta hona hemen demostrazino bat: uztailaren* 10-ean San Kristobalen eta 18-an Santa Mariñan, jaiak izango dira, santu bakoitzaren ermitatxuan. Hau dala ta, gazteak batu egin gara (22 guztitara), jaiak sasoi anto-latzeke.

Lehenengo, igazko diru mugimentuaren barri emon eban diru arduradunak; gero, jaiak aurrera eroateko zuzendaria eta sekretarioa danon akorduz aukeratu ziran; eta azkenez, bakoitzaren inizatiba ta eritxiak azaldu ziran. Jaietako programa eratuteko, batzarrak amabostero egitea erabagi zan.

Ea ba nagikeria ta ardurabakotasuna menperatzen dogun. Orain esku artean artu dogun arazo hau errenta-mentu bat izango da aurrerantzerako, pelotoia galdu eta atzean gelditu ez gaitezkan barriro be.

Aurrera mutilak, bakoitza bere arloan.

Arrianditarra

ZORNOTZA

Barriro agertu da "Karmel", Larrako Karmeldarren aldizkaria. Amaika urtean, 1951-tik 1962-rarte bizi izan zan. Beraz*, sortzi urte isilik egonda gero, barriro dator gure artera.

Bere irugarren aroan, iruilabeteroko lez etorriko da, eta urteko ordaina 100 peseta da. Aldizkari hau artu nahiz dozuonok, eskribidu Aita Onaindiari, Amorebieta-Larrea.

— o —

Antza danez, modako erri bat bihurtu jaku Zornotza. Eta ez da nik esatekoa; danok ikusi zeinke zenbat jende etorten dan, batez bere jaiegunetan. Albo errietatik eta Bilbo aldetik bere, ugari etorten dira. Puntaraino betarik egoten dira, errian diran whiskytegi ta kafetegiak. Hau ondo dago neurri batean; baina gauza beharrezkoak ahaztu edo ito barik, danok ondo baitakigu* noraino erdaldu jakun gure erria azken urte honetan.

Leungane

Yugoslavian egin diran ekonomiazko barriztapenak derigor sortu dabe, politika zaharra ekonomiazko jokabide barriari egokitzeko premia.

Dibisen puntuan ikusi leiteke hori. Yugoslaviak politika erdirakoi edo zentralistea eroan dau orainarte dibisa kontuan. Kapitala ahorratu be Belgradon egiten zan, inbestitinoak be Gobernuak erabagitzen zituan eta. Lantegiak, euren irabaziak gorde ta aurreratu barik (inbestitzerik ez euken eta), irabazi-alako guztia Belgradora bidaldu behar eben. Politika honeri, "yugoslavismoa" deitu leitekio: Yugoslaviako oinarri ta errealdade sozial plurala ahazturik, bertoko populua tribu bardin bat balitz legez gobernatzen zalako. Yugoslaviaren *batasunaren* aldeko politikea zan Gobernuaren ardurarik biziena. Politikan batera-zale edo unitarista bezala, ekonomian dirijista zan Gobernuaren jokabidea. Eta guztietan erdirakoi edo zentralista.

Gero, molde-barriztapenagaz autojestionia sortu zanean, dirijismo erditiarrek ez eukan zereginik. Eta lantegi bakoitzak, bere irabazirik andienak Belgradora bidaldu barik, bertan inbestiduo behar zituan ezker, lantegi bakoitzaren eta Errepublika federalen autonomiak berebiziko indarra artu behar eban nahi ta nahi ez. Autonomia hau oraindino gehiago indartu zan, Errepublika bakoitza ahalegin guztiakaz bere produktuak esportatzen asi zanean, eta holan lorturiko dibisak etxean gordetzen.

Ekonomia-molde barriari egokitzen ez jakon konzeptua bihurtu zan Yugoslaviaren politikazko *batasun konzeptua*. Errealdade sozio-nazionalari lehenengo, ta ekonomiazko errealdadeari be egokitzen ez jakona gero. Agiri egoan, batasun zaleak, hau da, gudua egin eben komunista klasi-kuak, gutxienez gutxienez errezeloz artuko zituela barrizta-zaleen asmuok. Erresumaren* batasun-konzeptua diferente bi baitagoz* jokabide biotan.

Autojestinoa asi orduko (1950) sortu zan joera bion burruka. Baina, 1965-ean erreforma asmoak radikalagotu ziranetik, politikazko burruka be asko gogortu da. Egia esateko, lan arazoetako autojestinoa asikeran ez zan oso benetakoa ta gaur be ez da erabatekoa. Yugoslavian, Alderdi bakarra ta sindikato bakarra dago (Komunistea). Erri kontseiluetako 59 % ta erri komisinoetako 65 % Alderdi Komunistakoak ziran 1958-an, eta gero be komunisten eskuetan jarraitzen dabe lan arazoak. Beraz*, lan arazoak bat eginda dagoz Alderdi Komunistaren barruagaz, beronen konzeptu edo bururazino, asmo ta jokabideakaz, eta Alderdiaren politikagaz. 1966-an, Rankovic Lehendakari-ordezko erdirakoi ta stalinista kutsukoa baztertzea lortu eben Kroazia ta Mazedoniako barrizta-zaleak. Hareek izan ziran, duda barik, Yugoslavia sozialistako erri-politikak eagutu dituan egunik larrienak. Rankovic baztertuta, salbaturik egoan molde-barriztapena.

Barriztapena, ondorio guztiakaz, azkeneraino eroateko arazoa biztu da orain, 1970 urtearen asikeran. Milos Zanko Parlamentuaren Lehendakari-ordezkoari, kendu egin deutso Kroaziako Alderdiak bere ordezkaritza Komite Zentralean, egun biko burruka gogorren buruan. "Zanko arazoak" Yugoslavia osoa enplegatu dau. Euki dabe esamesarik* franko, hori dala ta, mundu guztiko albistariak*. Hau idazten ari naizanean, ez dago arazoa amaiturik, eta Titoren esku-arte personal bat itxaroten da. Sektore politika-zaleak urduri* dagoz.

Baina zer dago prolema honeen azpian? Kroaziako Alderdi Komunistari holako kolpe espektakular bat emotera

zek eragin deutson itaundu geinke. Molde-barriztapenerako joera hau, Kroazia ta Eslovenia Errepublika industriatsuetatik zabalduetako da gehientsu bat (ez da ahaztu behar Errepublika honeek dirala mendebalera* makurtuenak be). Errepublika honeetan jokatzen da erreformaren etorkizuna.

Baina erreformak, ekonomiaz gainera, politikan be da dauka zerikusirik, esan dogun legez. Beraz*, bere ondorioak politikan nagusi-erazo arte, ezin esan leiteke ekonomiazko molde-barriztapena ondo finakatu danik. Ta hortxe dago auzia: autojestinoa, erdikoikeriaren eta utilitarismoaren aurka ta pluralismoaren alde joanik, luzarora politikazko elementu bihurtzen da, demokrazia liberalaren eta prentsa askatuaren zuzpergarri, nazinotasun bakoitzaren indargarri, eta abar. Yugoslaviaren (oraingo) batasuna ta Alderdi Komunistaren (oraingo) batasuna dagoz zinez* arriskuan. Baina dogmakoiatzat ez dago Yugoslaviaren edo Alderdiaren oraingoxea beste batasunik.

Komunista dogmakoiak dira komunista liberalen etsarik* gogorrenak. Zanko, Kroaziako Alderdiaren ordezkaritza Belgradora bidaldua, komunista zaharra ta nonnahi begirunez ohoratua, su ta ke ibili izan da aspaldion "abertzalekeriaren" eta batez be "kroaziar abertzalekeriaren" kontra. Atxakiarik ez jakon falta: 1967-ko "Izkuntza Agiria" ezkerotzik, kroaziarrek gero ta gogorrago azaldu ditue eskabide nazionalak. Gotovac idazleak Alderdiaren monopolioa kritikatzan eban. Kroaziako "Literatur Kazeta" biziki abertzale ari* zan (Zanko arazoa baino lehentxuago debekatua izan da aldizkari hau). Kroaziako uriburu Zagreb-eko alkateari be, abertzalekeria leporatu eutson Zankok, eta alkateak erretiratu egin behar izan eban. Joan dan abenduko idazlan sail batean, latz eraso* eutson "Borba" Belgradoko egunkariak* Kroaziako Alderdi Komunistaren buruzagitzari. Eta abar antzeko. Zankok ezin jasan* zituan Kroaziako buruzagitzaren bururazinoak Yugoslaviaren eta Alderdiaren batasunari buruz. Halan be, honeek ez dira besterik, autojestino sistemaren ondorio logikazkoak baino.

Irrati* guztietatik behin ta barriro zabaldu zan, "auzitegi erritar" baten antzeko Parlamentuko jardunaldiaren ondoren, Zanko deskargututa dagoala, kalean. Kontserbadore eta stalinista izatea ta bere Alderdiko batasun ta diziplinari kalte egitea leporatu deutsoe. Ta *unitarismoa!* Salakuntza hau barria da komunisten akusazino-zerrenda ohiturazko ta monotonoetan. Baina hauxe izan da kroaziarrek gehien ta gogorkien erabilitako salaketa.

Ezin esan zer jazoko dan. Zanko ez dago lagun barik, eta Titok laguntasuna agindu deusola entzuten da. "Borba" isilik lotu da, Zanko egunkari* honen zuzendaritzakoa izan arren. Indarrak bananduta geratu dira. Kolpea, halan be, unerik egokienean emonda dago; eta Kroaziako Alderdi Komunistak laster eukiko ditu amaituta Zankoren kontuak.

Hala ta guztiz be, kroaziar komunistak ondo dinoe, ez dirala gorabehera pertsonaltzat artu behar auziok. Kroaziar buruzagitzaren ustez, kontserbadoreak eta unitaristak erreforma torpedeatzeko konspirazino bat egiten ari* dira. Eta Zanko, Kroaziako Alderdi Komunistaren buruzagitza iraultzeko lanetan ebilela dirudi. Horregaitik, erreforma hau guztiz aurrera eragiteko urtea bihurtu gura dabe barrizta-zaleak 1970. Ekonomiazko molde-barriztapenagaz konpondu ezinezkoa baiteritxoe* erdikoikeriari, zentralismoari, ta honen ideologiazko oinarri dan unitarismoari.

Jose Azurmendi

ONGARRI Pentzuak

SARB-en ardurapean eratuak

Pentsatu ondo ta pentsatu ondo zure ganadua.

Burubako egina, alperreko ekina.

ONGARRI-k, barriz, buruz egiten ditu pentsuak.

ONGARRI pentsuak ezagutzen ez badozuz, probatu eizuz.

Egazi, txarri, koneju, txahal gazte, esne-behi, aragitako txahal: danentzako pentsuak, bakoitzari dagokiozanak. Baita ALIVO esne autsa be txahal txikientzat.

Eskatu gure banatzaileari edo zuzenbide hontara:

ONGARRI, S.A.

piensos compuestos

Valle de ACHONDO (Vizcaya) - Telefono 11

«Zaurifutako lorea», Pedro Sarriegik egindako antzerkia, il honen 18-an antzeztua izan da Tolósako Iparragirre saloian, Urnietako «Egi billa» taldekoak jokalaria dirala. Bizkaian ez dogu honako askorik ikusten.

«Ez dok amairu» talde ospetsuak kanta barri saio bat emon dau Iruñean, Labrit frontoian, «Oberena» taldekoak dohan* eraturako jaialdi batean.

«Festival internacional de Teatro» jardunaldiak izan dira Donostian; baina ez dabe amaiera onik izan. Azken egunean, ingelesak jardunean asteko ziranean, gazte talde aundi bat sartu zan saloian eta euren kontura artu zituen bazter guztiak. Arrazoia zan, inoen eurak, zentsureak esku zabala izan ebala erbesteko teatro taldeentzat, oso estua barriz bertokozentzat. Ta berbetan jarraitu eben, tarteka kantatuaz. Jende batzuek urten egin eben, baina gehienak bertan gelditu nahiko berandu arte. Holantxe amaitu zan teatro jardunaldi hau, eta El Diario Vasco'k «espectáculo bochornoso» deitu eutson jokaera honeri.

JOC-ekoak argitaratzen daben «Bilatzen» boletinaren martxo-ko zenbakia dala ta, Eliz agintari eta JOC-eko buruzagien artean alkarrizketa batzuek izan dira, aipatutako boletinean agertzen diran ideiei buruz. «Bilatzen» hori euskeraz eta erderaz idatzitako kuadernu bat da, eta multikopiazko 100 orrialdi ditu.

«Hable Vd. euskera» izenburuarekin argitaratu dau Luis Candell-ek artikulu zeharo interesgarri bat «Triunfo» aldizkarian (2-V-70). Gipuzkoan 62 ikastola dirala dino. Bizkaian 32, eta Nafarroa ta Araban askoz gutxiago.

2.000.000 peseta emon izan ditu isilean Iruñeko jaun batek. Ruandan ari* diran misiolariantzat.

Iruñeko San Iñazio elizan, mendigoizaleak eraturik, mezea euskeraz entzun ahal izango da, larunbat* guztietan, iluntziko 6.30-etan.

«Orain bat», Biarritzeko dantzari taldea Israelera joan da dantzaldi batzuek egitera, Estatu haretako liberazino jaietan.

«Gulf» amerikatar etxea da, jakina danez, Bilboko portu barria ta petrolio errefineria egitekotan dabilena. Azken denboraldi honetan, ostera, ez egitea erabagi dauala entzuten da. Hau honan izanik, Bilbotik Baionarako autobidea egiteko lanak be asko otzitu dirala entzuten dogu.

Andersñoentzat itzaldiak egon dira Bilbon. Pasiotarren etxean: «Euskalerraren geografia eta kondairaren batasun planteamentu bat», J. L. Lizundiak. «Gaurko Literatura», Abel Muniategik. «XIX ta XX-garren Mendetako Kondaira», Monrealek. Eta «Literatura Klasikoa», X. Kintanak.

«El Carlismo alavés y la guerra civil (1872-1876)». Izenburu hau daroa, Julio Arostegui arabar eskritoreak laster argitaratuko dauan liburuak.

«Batasunaren Kutxa» izenburuarekin laster batean argitaratuko dau LUR-ek liburu bat. Bertan agertzen dira Baionako Manifestua ta Zina*, Luis Mitxelenaren itzaurrea, Ortografia, Deklinabidea, Aditza* eta iztegi bateratua. «H-zaleok, esan dau Arestik, zerbait egiten dogu. Kontrakoak ez dabe ezer proposatzen».

Bergaran, euskal kantari saio bat egon da Mendekoste jaietan Lurdes Iriondo, Xabier Lete, Estitxu, Zaigor irukoteak eta Luis Amilibiak parte artu eben. «Ez dok amairu» taldekoei proposamentua egin eutseen, Laudion* erdal kantari batzuekin nahastean kantatzeko; baina eurak uko egin eben.

Antonio Palenzuela, Segoviako gotzainak ezkondu zituan erri haretako espetxean dagoan Txomin Ziluaga eta Izaskun Larrea-tegi, biak bilbotarrak.

Natxo de Felipe bilbotarrak, berak bakarrean, kantu saio batzuek emon izan ditu Lasarten, Bilboko «Juventus»-en eta Marinnan.

Abeslari eta abestaldiak (II)

KANTARIEN RADIKALTASUNA

Azken amar urte honeetan, teoriak eta praktikaz radikaltasuna geroago ta gehiago zabaltzen doa. Ez noa orain, radikaltasun honen esan-nahia eta iturriak aztertzeraz, abeslariak eskatzen jaken radikaltasuna apur bat azaltzeraz baino.

Bizitzako alderdi guztietan aldaketa osoa eskatzen da, konponketa bigunak baztertuaz. Kapitalismoaren ordeaz, ez dogu nahi Kapitalismo Barria. Eliz alderditik, ez gara konformatzen sasi-erantzun bategaz. Jakintza arloan ez dogu onartzen, ilun dagoan «bilinguismo» hori, gure izatearen «erdibitze» hori...



Egoera honetan, abeslariak radikaltasuna eskatzea oso logikua da, sarritan abeslariak eurak be horixe eskatzen dabe ta. Behar beharrezkoak eta onuragarriak dira eskabideok.

Izkuntza, diru arloa (egiaz, profesionalismoa da eztabaiden zera) eta pentsakera izaten dira, gehienetan, radikaltasun honen gaiak. Eta irurak, abeslari eta euskaldun guztioi eskatu behar jakena. Baina egiaz (teoriaz...), radikaltasun horrek euskeraz abestutea, euskeraz abestutea bakarrik esan gura dau. Abeslariok, barriz, ez gara eritxi batekoak gizarite eta erri arazoei begira.

Danok euskeraz abestutearren, euskerari buruz ez dogu eritxi bardina. Erriari abestu nahi izan arren, «erria» itz horren esangurea ezbardina da abeslari bakoitzarentzat. Gainera, gaur euskeraz abestuteko, amaika arrazoi dira gure artean. Iru puntu honek eta beste batzuek gogoan euki behar dira, abeslariak radikaltasuna eskatzerakoan.

Euskeraz abestutea, beste barik, ez da arrazoi nahikoa, abeslariak kantutik kanpora «mirariak» eskatzeko. Lehenen lehenengo, erri arazoan agertzaile edo beste nazioetako abestien agertzaile diran ala ez ikusi behar da; eta gero, sentimentuari nahiz modari jarraitu barik, zentzun apur bategaz abeslariak radikaltasuna eskatu.

Aldi baten, «Ez dok amairu» taldea dala ta, amaikatxo lelokeria eta zentzunbako gauza entzun nituan. Modan egoan, «burges» topikua «Ez dok amairu»-ri leporatzea; eta hortik sortu ziran funtsik bako kritika batzuek. Zenbait* gaztek sakonezko azterketa bat egin gura eutsoen «Ez dok amairu»-ren pentsakerari azalezko puntu batzuekin.

Hortik sortzen dan zera, benetako radikaltasuna baino andren zurrumurrua iruditzen jat.

Abestari Batek

Arabako Eliza ta Euskalerrria

Argi ta garbi agertu da gaurarte, Arabako eliz agintarientzat Araba ez dala Euskalerrri. Aurreko artikuluan esan neban, Arabako gotzainak ez dauala Euskalerrriko beste gotzainekin artuemonik nahi.

Teologiako Fakultatea bere ba dogu Gazteizen. Fakultadaren izena honela da erderaz: "Facultad Teológica del Norte de España, con sede en Burgos y en Vitoria". Ikusten dozuenez, teologia maila honetan bere, Burgosetik urreago gagoz, Bilbotik, Donostiatik eta Iruñetik baino.

Ez eliz agintaritzat aldetik eta ez teologia ikasketa aldetik, oraindino ez da sortu, Araba Euskalerrri danaren susmorik. Euskalerrri danaren kontzientzia ez dala sortu esatea, gutxi izango litzake. Mila leguatara gagoz kontzientzia horretatik. Oraindinoarren, susmorik bere ez da sortu.

Legutianon* apaiz aldaketa izan da, oraindik asko ez dala. Legutianon ba dago oraindino euskeraz egiten dauan jendea. Gero ta gutxiago egiten bada, elizgizonen ardura-bakokeriagaitik da asko. Baina, halan bere, oraindik askok eta askok ba dakie euskeraz han. Hori ondo jakin arren bere, orain hara bidaldu dituen abadeak ez dakie tutik euskeraz. Ta ez da, Araban abade euskaldunik ez dagoalako. Ba dagoz ugari.

Baina, alderdi hau utzita, beste bateri elduko deusak orain. Elizako agintarien aldetik gauzak honela badira, azpitik besterik be ba dago. Gazteizen ba dago, gaur egun, euskaldun talde izan nahi dauan kristinau talde on bat. Talde hau bertakoa bakarrik ez da. Azken urte honeetan, jendetza aundia etorri jaku Gipuzkoa eta Bizkai aldetik. Danetara, bi mila ta bostehun familia inguru ba dira, euskeraz dakienak. Eurotarik asko eta asko sakabanatuta bizi dira, eta kristinau interesak ez ditue ezetarako biltzen* alkarregaz. Euskal interesak bere ez. Eliztar diranak, erderazko elizkizunetara joaten dira, bakoitza bere parrokiara. Batzuek ezjakinagaitik, gehienak alferkeriagaitik edo euskal kontzientzia gutxi dabelako. Beste batzuek, erdaldun parroketan gauzak ondo egin nahi dituelako bere bai.

Baina ba dira euskerazko mezak bere: bi larunbatetan* eta jai bezperetan, eta bi igandeetan*. Eta beste bat izkuntza bietara, orain bost ilabete jarria, gazteentzat.

Gazteen bi izkuntzetako meza honetara gazte pilo galanta joaten da. Euskeraz dakienak dira batzuek, ikasten ari* diranak gehienak. Gazte honeen barnean ba dago kezka bardin bat: Euskalerrriaren kezka. Euskalerrri gareanaren kontzientzia, edo kontzientzia hori sortu nahia behintzat. Ta baita be (bestela Eukaristiak ez leuke sentidurik izango) sinesmena eta euskal konprometitzea buztartuta eroan nahia.

Euskera utsezko mezetan kristinau talde bikaina biltzen* da. Oso jende jatorra. Jende eliztarra, baina elizara joatea nahikoa ez dala ondo dakienetarikoa.

Ilabete t'erdian edo, euskerazko teologia kursillo bat izana dogu. Oso gauza pozgarria izan da. Uste baino eskoz jende gehiago. 70 inguru biltzen ziran, astean bi aldiz. Gai sakonak erabili ziran; eta jendeak ikusi eban, teologiako gai sakonak bere erabili daitezkezala euskeraz.

Kursillo ha, amaitu zan; baina, ilean behin edo, zerbait izango da aurrerantzean bere. Kursillo honetan baita zera be ikusi genduan, euskal fededunok batasun aundiago eta sakonago batera eldu gaitkezala. Ez da nahikoa daukaguna. Askoz be aurrerago jo behar dogu.

Teologia, kristinau dotrina ta elizkizun guztiak erderaz egiten diran tokian, euskerak ba dauka lana nahikoa. Horregaitik, gure indarrak eta jendeak batu behar ditugu; eta parrokia bat sortzen saiatu, ez arrizkoa, pertsonazkoa baino. Izkuntza oinarri dala, euskerazko parrokia.

Horixe da, gaurko egunez, Gazteizko euskal talde baten asmoa. Ez dakit zer lortuko dogun. Erraztasunik ez dogu izango goi aldetik.

Dana dala, gizarte batean minoria bat esnatzen* danean, inportantzia andiko zerbait gertatzen da. Ikusiko ditugu ondorenak.

Eusebio Osa

Izen Madarikatuak

Bai! Nahiz eta guzur itxurea euki, egia da. Izen batzuek, erri batzuek bezalaxe, madarikatuen taldekoak dira. Zeintzuk diran erri madarikatu horreek? Odolaren eskaintza eskatzeko indarrak ez dabenak. Eta zeintzuk, izen madarikatuak? Beste izen baten geriza behar dabenak, munduan zehar ibiltzeko.

Zegaitik hori guztia? Rousseau-k inoan*: "Besteen buztarpean dagoan erria, apurtu egingo da". Besteak, beti "beste" dira; eta horrela dan bitartean, ondo dago. Bestetasun hori nahi dauanak, neure askatasuna gura dau; eta nik ezin amore emon!

Askatasunak, aukerabidean ipintzen nau. Horixe da, hain zuzen bere, askatasunaren kezka, eta ederra be bai era berean. Aukera beharrak, egia ba dala, erakusten deust; baina baita errua be ba dala. Uste bagean, aukera daiteke errua; orduan ez da errua. Zori txarra besterik ez. Aukerarena kendu-nahia, beti da errua. Eta beti txarra.

Zer egin, beraz*? Zer egin, aukerabide hori kentzean? Zer egin, buztarri astun bat lepo gainean ezartzean? Beste biderik ez: madarikatuen taldean sartu; izenik bako zerranda loditu.

Ez deus ardura. Hori egin daiteken bitartean, zerbait da; asko. Hori, zelanbaiteko askatasuna da. Izan; nahiz eta madarikatua izan, izan. Beti, obe da izatea, ez izatea baino. Beraz, nahiz eta kaxkartu, daitekenari eldu behar. Eguzkiaren argitan ibili ezin daitekena, poxporoaren argitan

ahaleginduko da. Hori be askatasuna da. Batzuek, madarikatzaileak; besteak, madarikatuak. Nor ote da bietan madarikatuena? Nik, askatasuna aukeratu dot. Eta aukera hori egitean, Camus-ek inoana* neban gogoan: "Askatasuna, ohea izateko zoria besterik ez da; morrontza*, okerre-nik daitekenaren segurantz".

Nik, madarikatu honek, zalantza* baitza maiteago dot, itxaropenik bako segurantz baino. Horregaitik, nire izen madarikatua alde batera utziaz, ordezko baten geriza nireganatu dot.

Kantilazpi

ANAITASUNA

**GU GUZTION ALDIZKARI HAU
ZABALDU TA INDARTZEKO, EIZU
BESTE ARPIDEDUN BARRI BAT.**

"Batasunaren Kutxa", Euskeraren batasunaren liburua, Euskal Idazleen Elkarteak onartua, Luis Mitxelena Sorbonako eta Salamancako katedratiko jaunaren zuzendaritzapean Gabriel Aresti eta Xabier Kintana esklabo proletarioek taxutua eta LUR editorialak argitaratua. Hona gure euskera urrikariaren azken esperantza.

Liburu horretan euskeraren dialektoen gaitzasun guztiak apurtu egiten dira. Liburu horretan agertzen direnak ikasita gero, euskaldun guztiak bat izanen gara. Bertan ikusiko dituzue, lehenez euskeraz esplikaturako hiztegi batean, euskal hitzak nola eskribitu behar diren, bertan ikas ditzaitezue euskal gramatikaren erregela eta lege zuzenak, batez ere ortografian, deklinazioan eta konjugazioan.

AHAZTU	NORK NOR ETA NORI	NIK AHAZTU	HIK (GIZ.) AHAZTU	HIK (AND.) AHAZTU	HAREK AHAZTU	GUK AHAZTU	ZUK AHAZTU	ZUEK AHAZTU	HAIEK AHAZTU
NAIZ	NI	—	NAUK	NAUN	NAU	—	NAUZU	NAUZUE	NAUTE
HAIZ	HI	HAUT	—	—	HAU	HAUGU	—	—	HAUTE
DA	GAUZA BAT	DUT	DUK	DUN	DU	DUGU	DUZU	DUZUE	DUTE
ZAIT	NIRI	—	DAUTAK	DAUTAN	DAUT	—	DAUTAZU	DAUTAZUE	DAUTATE
ZAIK	HIRI (GIZONA)	DAUAT	—	—	DAUK	DAUGU	—	—	DAUATE
ZAIN	HIRI (ANDREA)	DAUNAT	—	—	DAUN	DAUNAGU	—	—	DAUNATE
ZAIO	HARI	DIOT	DIOK	DION	DIO	DIOGU	DIOZU	DIOZUE	DIOTE
ZAIGU	GURI	—	DAUKUK	DAUKUN	DAUKU	—	DAUKUZU	DAUKUZUE	DAUKUTE
ZAIZU	ZURI	DAUTZUT	—	—	DAUTZU	DAUTZUGU	—	—	DAUTZUTE
ZAIZUE	ZUEI	DAUTZUET	—	—	DAUTZUE	DAUTZUEGU	—	—	DAUTZUETE
ZAIÉ	HAIEI	DIÉT	DIEK	DIEN	DIE	DIEGU	DIEZU	DIEZUE	DIETE
GARA	GU	—	GAITUK	GAITUN	GAITU	—	GAITUZU	GAITUZUE	GAITUZTE
ZARA	ZU	ZAITUT	—	—	ZAITU	ZAITUGU	—	—	ZAITUZTE
ZARETE	ZUEK	ZAITUET	—	—	ZAITUE	ZAITUEGU	—	—	ZAITUEZTE
DIRA	HAEK	DITUT	DITUK	DITUN	DITU	DITUGU	DITUZU	DITUZUE	DITUZTE
ZAIKIDAK	NIRI	—	DAUKIDAK	DAUKIDAN	DAUKIT	—	DAUKIDAZU	DAUKIDAZUE	DAUKIDATE
ZAIKIK	HIRI (GIZONA)	DAUKIAT	—	—	DAUKIK	DAUKIAGU	—	—	DAUKIATE
ZAIKIN	HIRI (ANDREA)	DAUKINAT	—	—	DAUKIN	DAUKINAGU	—	—	DAUKINATE
ZAIKIO	HARI	DIZKIOT	DIZKIOK	DIZKION	DIZKIO	DIZKIOGU	DIZKIOZU	DIZKIOZUE	DIZKIOTE
ZAIKIGU	GURI	—	DAUKIGUK	DAUKIGUN	DAUKIGU	—	DAUKIGUZU	DAUKIGUZUE	DAUKIGUTE
ZAIKIZU	ZURI	DAUKIZUT	—	—	DAUKIZU	DAUKIZUGU	—	—	DAUKIZUTE
ZAIKIZUE	ZUEI	DAUKIZUET	—	—	DAUKIZUE	DAUKIZUEGU	—	—	DAUKIZUETE
ZAIKIE	HAIEI	DIZKIET	DIZKIEK	DIZKIEN	DIZKIE	DIZKIEGU	DIZKIEZU	DIZKIEZUE	DIZKIETE

AHAZTUKO	NORK NOR ETA NORI	NIK AHAZTUKO	HIK (GIZ.) AHAZTUKO	HIK (AND.) AHAZTUKO	HAREK AHAZTUKO	GUK AHAZTUKO	ZUK AHAZTUKO	ZUEK AHAZTUKO	HAIEK AHAZTUKO
NINTZATEKE	NI	—	NINDUKEK	NINDUKEN	NINDUKE	—	NINDUKEZU	NINDUKEZUE	NINDUKETE
HINTZATEKE	HI	HINDUKET	—	—	HINDUKE	HINDUKEGU	—	—	HINDUKETE
LIZATEKE	GAUZA BAT	NUKE	HUKE	HUKE	LUKE	GENUKE	ZENUKE	ZENUKETE	LUKETE
LITZAIKET	NIRI	—	HEUKET	HEUKET	LEUKET	—	ZENEUKET	ZENEUKEDATE	LEUKEDATE
LITZAIKEK	HIRI (GIZONA)	NEUKEK	—	—	LEUKEK	GENEUEK	—	—	LEUKEATE
LITZAIKEN	HIRI (ANDREA)	NEUKEN	—	—	LEUREN	GENEUKEN	—	—	LEUKENATE
LITZAIKEO	HARI	NIKEO	HIKEO	HIKEO	LIKEO	GENIKEO	ZENIKEO	ZENIKEOTE	LIKEOTE
LITZAIKEGU	GURI	—	HEUKEGU	HEUKEGU	LEUKEGU	—	ZENEUEGU	ZENEUEGUTE	LEUKEGUTE
LITZAIKEZU	ZURI	NEUKEZU	—	—	LEUKEZU	GENEUEZU	—	—	LEUKEZUTE
LITZAIKEZUE	ZUEI	NEUKEZUE	—	—	LEUKEZUE	GENEUEZUE	—	—	LEUKEZUETE
LITZAIKEE	HAIEI	NIKEE	HIKEE	HIKEE	LIKEE	GENIKEE	ZENIKEE	ZENIKEETE	LIKEETE
GINATEKE	GU	—	GINTUZKEK	GINTUZKEN	GINTUZKE	—	GINTUZKEZU	GINTUZKEZUE	GINTUZKETE
ZINATEKE	ZU	ZINTUZKET	—	—	ZINTUZKE	ZINTUZKEGU	—	—	ZINTUZKETE
ZINEZTEKE	ZUEK	ZINTUEZKET	—	—	ZINTUEZKE	ZINTUEZKEGU	—	—	ZINTUEZKETE
LIRATEKE	HAEK	NITUZKE	HITUZKE	HITUZKE	LITUZKE	GENITUZKE	ZENITUZKE	ZENITUZKETE	LITUZKETE
LITZAIKZKET	NIRI	—	HEUZKET	HEUZKET	LEUZKET	—	ZENEUZKET	ZENEUZKEDATE	LEUZKEDATE
LITZAIKZKEK	HIRI (GIZONA)	NEUZKEK	—	—	LEUZKEK	GENEUZKEK	—	—	LEUZKEATE
LITZAIKZKEN	HIRI (ANDREA)	NEUZKEN	—	—	LEUZKEN	GENEUZKEN	—	—	LEUZKENATE
LITZAIKZKEO	HARI	NITIKEO	HITIKEO	HITIKEO	LITIKEO	GENITIKEO	ZENITIKEO	ZENITIKEOTE	LITIKEOTE
LITZAIKZKEGU	GURI	—	HEUZKEGU	HEUZKEGU	LEUZKEGU	—	ZENEUZKEGU	ZENEUZKEGUTE	LEUZKEGUTE
LITZAIKZKEZU	ZURI	NEUZKEZU	—	—	LEUZKEZU	GENEUZKEZU	—	—	LEUZKEZUTE
LITZAIKZKEZUE	ZUEI	NEUZKEZUE	—	—	LEUZKEZUE	GENEUZKEZUE	—	—	LEUZKEZUETE
LITZAIKZKEE	HAIEI	NITIKEE	HITIKEE	HITIKEE	LITIKEE	GENITIKEE	ZENITIKEE	ZENITIKEETE	LITIKEETE

ANAITASUNA-k, CINSA eta LUR etxeen kortesiaz, bere irakurleei eskaintzen die liburu horren primezia. Gainera euskeraren batasunaren punturik gaitzenez, aditzaren konjugazioan.

Lau kuadro agertzen ditugu. Ez dugu uste hoek konprenitza ezein euskalduni gaitz izanen zaionik. Hala ere, esplikazio hauk eman nahi ditugu: Ezkerreko kolumna

aditz intransitiboentzat bakarrik dela, eta gainerako guztiak trantsitiboentzat. Hauetan aktiboa agertzen da goitik behera, eta pasiboa ezkerretik eskumara. Datiboak banan-banan agertzen dira, adizki datiborik gabekoen azpitik.

Gure ahalegin hau euskeraren onerako eta Euskal Herriaren etorkizunaren zorionerako betor. Jainkoak hala nahi beu.

AHAZTU	NORK NOR ETA NORI	NIK AHAZTU	HIK (GIZ.) AHAZTU	HIK (AND.) AHAZTU	HAREK AHAZTU	GUK AHAZTU	ZUK AHAZTU	ZUEK AHAZTU	HAIEK AHAZTU
NINTZEN	NI	—	NINDUAN	NINDUNAN	NINDUEN	—	—	NINDUZUEN	NINDUTEN
HINTZEN	HI	HINDUDAN	—	—	HINDUEN	HINDUGUN	NINDUZUN	—	HINDUTEN
ZEN	GAUZA BAT	NUEN	HUEN	HUEN	ZUEN	GENUEN	ZENUEN	ZENUTEN	ZUTEN
ZITZAJDAN	NIRI	—	HEUTAN	HEUTAN	ZEUTAN	—	ZENEUTAN	ZENEUTATEN	ZEUTATEN
ZITZAIAN	HIRI (GIZONA)	NEUAN	—	—	ZEUAN	GENEUAN	—	—	ZEUATEN
ZITZAINAN	HIRI (ANDREA)	NEUNAN	—	—	ZEUNAN	GENEUNAN	—	—	ZEUNATEN
ZITZAIION	HARI	NION	HION	HION	ZION	GENION	ZENION	ZENIOTEN	ZIOTEN
ZITZAIĞUN	GURI	—	HEUKUN	HEUKUN	ZEUKUN	—	ZENEUKUN	ZENEUKUTEN	ZEUKUTEN
ZITZAIĞUN	ZURI	NEUTZUN	—	—	ZEUTZUN	GENEUTZUN	—	—	ZEUTZUTEN
ZITZAIĞUEN	ZUEI	NEUTZUEN	—	—	ZEUTZUEN	GENEUTZUEN	—	—	ZEUTZUETEN
ZITZAIEN	HAIEI	NIEN	HIEN	HIEN	ZIEN	GENIEN	ZENIEN	ZENIETEN	ZIETEN
GINEN	GU	—	GINTUAN	GINTUNAN	GINTUEN	—	GINTUZUN	GINTUZUEN	GINTUZTEN
ZINEN	ZU	ZINTUDAN	—	—	ZINTUEN	ZINTUGUN	—	—	ZINTUZTEN
ZINETEN	ZUEK	ZINTUEDAN	—	—	ZINTUEN	ZINTUEGUN	—	—	ZINTUEZTEN
ZIREN	HAEK	NITUEN	HITUEN	HITUEN	ZITUEN	GENITUEN	ZENITUEN	ZENITUZTEN	ZITUZTEN
ZITZAIĞKIDAN	NIRI	—	HEUĞKIDAN	HEUĞKIDAN	ZEUĞKIDAN	—	ZENEUĞKIDAN	ZENEUĞKIDATEN	ZEUĞKIDATEN
ZITZAIĞKIAN	HIRI (GIZONA)	NEUĞKIAN	—	—	ZEUĞKIAN	GENEUĞKIAN	—	—	ZEUĞKIATEN
ZITZAIĞKINAN	HIRI (ANDREA)	NEUĞKINAN	—	—	ZEUĞKINAN	GENEUĞKINAN	—	—	ZEUĞKINATEN
ZITZAIĞKION	HARI	NIZKION	HIZKION	HIZKION	ZIZKION	GENIZKION	ZENIZKION	ZENIZKIOTEN	ZIZKIOTEN
ZITZAIĞKIGUN	GURI	—	HEUĞKIGUN	HEUĞKIGUN	ZEUĞKIGUN	—	ZENEUĞKIGUN	ZENEUĞKIGUTEN	ZEUĞKIGUTEN
ZITZAIĞKIZUN	ZURI	NEUĞKIZUN	—	—	ZEUĞKIZUN	GENEUĞKIZUN	—	—	ZEUĞKIZUTEN
ZITZAIĞKIZUEN	ZUEI	NEUĞKIZUEN	—	—	ZEUĞKIZUEN	GENEUĞKIZUEN	—	—	ZEUĞKIZUETEN
ZITZAIEN	HAIEI	NIZKIEN	HIZKIEN	HIZKIEN	ZIZKIEN	GENIZKIEN	ZENIZKIEN	ZENIZKIETEN	ZIZKIETEN

AHAZTU	NORK NOR ETA NORI	NIK AHAZTU	HIK (GIZ.) AHAZTU	HIK (AND.) AHAZTU	HAREK AHAZTU	GUK AHAZTU	ZUK AHAZTU	ZUEK AHAZTU	HAIEK AHAZTU
BANINTZ	NI	—	BANINDUK	BANINDUN	BANINDU	—	BANINDUZU	BANINDUZUE	BANINDUTE
BAHINTZ	HI	BAHINDUT	—	BAHU	BAHINDU	BAHINDUGU	—	—	BAHINDUTE
BALITZ	GAUZA BAT	BANU	BAHU	—	BALU	BAGENU	BAZENU	BAZENUTE	BALUTE
BALITZAIT	NIRI	—	BAHEUT	BAHEUT	BALEUT	—	BAZENEUT	BAZENEUTATE	BALEUTATE
BALITZAIK	HIRI (GIZONA)	BANEUK	—	—	BALEUK	BAGENEUK	—	—	BALEUATE
BALITZAIN	HIRI (ANDREA)	BANEUN	—	—	BALEUN	BAGENEUN	—	—	BALEUNATE
BALITZAIIO	HARI	BANIO	BAHIO	BAHIO	BALIO	BAGENIO	BAZENIO	BAZENIOTE	BALIOTE
BALITZAIĞU	GURI	—	BAHEUKU	BAHEUKU	BALEUKU	—	BAZENEUKU	BAZENEUKUTE	BALEUKUTE
BALITZAIĞU	ZURI	BANEUTZU	—	—	BALEUTZU	BAGENEUTZU	—	—	BALEUTZUTE
BALITZAIĞUE	ZUEI	BANEUTZUE	—	—	BALEUTZUE	BAGENEUTZUE	—	—	BALEUTZUETE
BALITZAIIE	HAIEI	BANIE	BAHIE	BAHIE	BALIE	BAGENIE	BAZENIE	BAZENIETE	BALIE TE
BAGINA	GU	—	BAGINTUK	BAGINTUN	BAGINTU	—	BAGINTUZU	BAGINTUZUE	BAGINTUZTE
BAZINA	ZU	BAZINTUT	—	—	BAZINTU	BAZINTUGU	—	—	BAZINTUZTE
BAZINETE	ZUEK	BAZINTUET	—	—	BAZINTUE	BAZINTUEGU	—	—	BAZINTUEZTE
BALIRA	HAEK	BANITU	BAHITU	BAHITU	BALITU	BAGENITU	BAZENITU	BAZENITUZTE	BALITUZTE
BALITZAIĞKIT	NIRI	—	BAHEUĞKIT	BAHEUĞKIT	BALEUĞKIT	—	BAZENEUĞKIT	BAZENEUĞKIDATE	BALEUĞKIDATE
BALITZAIĞKIK	HIRI (GIZONA)	BANEUĞKIK	—	—	BALEUĞKIK	BAGENEUĞKIK	—	—	BALEUĞKIATE
BALITZAIĞKIN	HIRI (ANDREA)	BANEUĞKIN	—	—	BALEUĞKIN	BAGENEUĞKIN	—	—	BALEUĞKINATE
BALITZAIĞKIO	HARI	BANIZKIO	BAHIZKIO	BAHIZKIO	BALIZKIO	BAGENIZKIO	BAZENIZKIO	BAZENIZKIOTE	BALIZKIOTE
BALITZAIĞKIGU	GURI	—	BAHEUĞKIGU	BAHEUĞKIGU	BALEUĞKIGU	—	BAZENEUĞKIGU	BAZENEUĞKIGUTE	BALEUĞKIGUTE
BALITZAIĞKIZU	ZURI	BANEUĞKIZU	—	—	BALEUĞKIZU	BAGENEUĞKIZU	—	—	BALEUĞKIZUTE
BALITZAIĞKIZUE	ZUEI	BANEUĞKIZUE	—	—	BALEUĞKIZUE	BAGENEUĞKIZUE	—	—	BALEUĞKIZUETE
BALITZAIĞKIE	HAIEI	BANIZKIE	BAHIZKIE	BAHIZKIE	BALIZKIE	BAGENIZKIE	BAZENIZKIE	BAZENIZKIETE	BALIZKIETE

ETIKETEN JOKOA

Gaur egunean, etiketen munduan bizi gara. Eztabaida eta alkarrizketan biderik errazena, batak besteari, tomate poteei legez, etiketa bitxiak itsastea* dogu. Holan, euskaltzale izatea, XIX-gn. mendeko* *razismoa* biztutea ei da. Izkuntzaren mitoa Sabinok asmatu ei eban, euskal razismoarekin batera. Horretatik gelditzen jakuna, izkuntza zalekeria da, dinoenez. Arrazoi honeen sustar bako sinplekera ez jako inori izkutatzen.

Alde batetik, ba dakigu danok, estadu, klase, kapitalismo eta holango nozinoak sortu baino lehen bere, euskaldunak euren buruari *euskaldun* esaten eutsoela, berau zala erritasunaren ezaugarririk jatorrena, nahiz eta politikaz zatikaturik bizi. Beraz*, hau ez da, batzuek gura leukeen legez, burgeskeriak asmaturiko ipuin polit bat. Hau, erriaren kontzientziak egindako zerbait da.

Bestetik, euskeraren arerioei "inperialista" etiketa ipintea bere, ez da bapere gatxa. Eta hau inperialismo zahar baten ondorea dala probatzea, erraza da oso.

Gaur, sasi unibersalismo edo internazionalismo atxakiaz, betiko inperialismoaren egarria izkutatatu daiteke. Probak? Begira —bat ekartearren— zer inoan* Nebrija-k XV mendean bere Gramatikaren asieran, Isabel erreginari egindako itzaurrean: "El tercer provecho desde mi trabajo puede ser aquel que, cuando en Salamanca di la muestra de aquesta obra a vuestra real Majestad e me preguntó

que para qué podía aprovechar, el mui reverendo padre Obispo de Avila me arrebató la respuesta; e respondiéndome por mí, dixo que después que vuestra Alteza metiesse debaxo de su yugo muchos pueblos bárbaros e naciones de peregrinas lenguas, e con el vencimiento aquéllos tenían necesidad de recibir las leyes quel vencedor pone al vencido, e con ellas nuestra lengua, entonces por esta mi Arte podrían venir en el conocimiento della, como agora nosotros dependemos el arte de la gramática latina para deprender latín". Eta beste hau bere: "*Siempre la lengua fue compañera del imperio*".

Zeintzuk ziran izkuntza arrotzeko erri basati hareek? Nik neuk ez dakit. Ba dakigu, baina, Ameriketako indioak ez zirala, lurralde hareek oraindino deskubridu barik egotalako. Nebrijaren Gramatikak inprentatik urten ebanean (1492-ko abuztuan), Colon bidean joian eta zer aurkituko eban ez ekian (gaur deskubrimentu ha goratzeko, *arrazaren jaia* ospatzen da). Urte hatantxe (1492-ko urtarrilean) Granada artu eban; eta ba dakigu, 1516-garrenean Fernando Katolikuaren ejerzitua Nafarroan indarka sartua zala.

Holantxe dira gauzak. Oba geunke askotan, etiketen jokia alde batera utzita, kondairaren datuak mahai gainean ipiniko bagenduz.

F. Aldasoro

Gure itsasoko aberaskuntza

Euskalerriko zati on bat itsasoagaz bat eginda dago, eta aberaskuntza aundia lortzen dau itsasotik.

Aberaskuntza mamintsua gure arrantzaleena, bokarta, legatza, atuna eta abar polito arrapatzen dabenean.

Arrain horreek, hainbat gose kentzeko izaten dira. Kondairan zehar ikusten da gure itsasoaren garrantzia, gosea kentzeko eta mundu guztiagaz artuemonak eukiteko.

Arraintza kontuan, trebeak dira euskaldunak. Arrain freskua, ta arrain gordea ta gazitua saltzen dabe, barnean eta kanpoan.

Joan dan urtean asko saldu da atzerrian, igazlehenean* baino askoz gehiago.

Espainia guztiko zenbakiak artu ezkerro, azken urte biotako salketak itxura hau dauke mila pesetatan:

	1968		1969	
	Gazituak	Gordeak	Gazituak	Gordeak
Erosleak				
Italia	383.716	290.208	477.994	342.419
Frantzia	38.374	74.233	31.690	76.095
U. S. A.	70684	122.557	74.253	194.600
Suiza	1.592	76.910	3.707	123.739
Alemania	21.462	75.274	30.748	161.528
Australia	19.682	9.752	16.176	21.799
Inglaterra	8.479	17.555	2.580	30.982
Holanda	8.720	9.389	9.108	14.061
Belgika	11.268	27.064	25.105	35.410
Canada	6.664	3.568	8.722	7.368

Italia izaten da eroslerik aundiena. Bokarta erosten dau, bokart gazitua, lata ontzietan eta oliotan gordetzen dana. Frantziak, ostera, bokarta upeltxueta erosten dau.

Goiko kuadrutan ikusten danez, U.S.A. da oraingoz munduko bigarren eroslea.

Arrain saltze honeek zabaltze aundiagoa behar dabe, gure itsasoko produktuak erri gehiagotara eldu daitezcan.

Aipatu diran urteetan, mundu guztira saldutako arrainak zenbaki honeek emoten ditu:

	arrain gazitua	arrain gordea
1968	1.639 miloi	1.121 miloi
1969	2.144 miloi	1.558 miloi

S. Larrea

Montejurrako bilera

Urtero bezala, maiatzaren lehenengo igandean*, Lizarran* bildu izan dira "karlista" izenarekin ezagutzen diran alkartekoak. Beste eginkizun batzuen artean, eta Lizarran bertan, politikazko itzaldi bat irakurri zan altabozen bidez. Itzaldi hori "Junta Suprema del Carlismo"-k egina zan, eta bezperan kazetariet* emona. Beste zenbait* gauzaren artean, ba inoan* agiri honek:

"Gu ez gara erlejinoaren izenean alkartutako talde bat, politikazko ideia batzuek aitik baino.

Horregaitik, politikazko talde guztientzat askatasuna eskatzen dogu.

Sindikatoei buruz dinogu, langileak eurak antolatu behar dituela, arazo honetan politiku agintariak ezetan eskurik sartu bage.

Era berean eskatzen dogu, Peninsulako erri guztiak, euren libertade ta legeetan oinarriturik, askatasunez eratu behar dabela Espainiako Estadua.

Eta erlejinozko libertadeari buruz dinogu, arlo honetan benetako askatasuna eukiteko, Estaduak eta Elizak alkar zeharo banandurik egon behar dabela".

Azkenean, "Oriamendi" ereserkia* kantatu zan; baina askok *Goñi, Goñi!* ots egiten eban, Cortes-etako prokuradore horrek itz egin eian eskatuz.



BIZKAIA, Amabosterokoa, 10

Zuzendaria: Angel Celayeta Guisasa.

Jabea: Kantauriko Frantzizkotar Irugarrendarrak, Durangon, Intxaurrondo, 3.

Idazkola ta banakola: Bengoetxe, 33-b. Galdakano. Tel. 396 eta 397. XVIII-gn. urtea. 189 zenb. 1970.

Maiatzak 30

D. L. Bi. 1.753-1967.

Inprimatzen dau: Imprenta IDEAL-ek, Galdakanon, Bengoetxe, 70.

Irartzen dau: RALI.

Irune ta Andoni

ARGOITIA

Zuzenbidea: Velarde, 47 - ONDARROA
Tel. 660

IKUSI, MENDIZALEAK

(Egilea: Sabin Gereño)

Ikusi, mendizaleak,
baso eta zelaiak;
mendi tontor gainera
igon behar dugu.

Ez nekeak ezta bide txarrak;
gora, gora,
neska-mutilak, aaa.
Gu euskaldunak gara,
Euskal Herrikoak.

Hemen mendi tontorrean,
euskal lurren artean,
begiak zabaldurik,
bihotza erretan.

Hain ederra, hain polita da ta,
gora, gora,
Euskal Herria, aaa.
Gu euskaldunak gara,
Euskal Herrikoak.

UMETXOAREN AMETSAK

Mutiltxo batek behin galdetu zun:
aita noiz etorriko da?
Amak negarrez erantzun zion:
zeruan dago zure zain.

Ta geroztik gauean
izarrak ikustean,
mutiltxoak pentsatzen du,
amaren magalean:
laister, laister, laister,
haundia naizenean,
aitatxoren bila joango naiz
izar baten gainean.

Gero urteak pasa ziraden,
mutil koxkorra gizondu,
eta jakin zun nola, aspaldiz,
aitatxo gerran hil zuten.

Ta negarrez oroitzen da,
gora begiratzean,
txikitako ametsetaz
amaren magalean:
nola, nola, nola,
ilunabarrean,
aitatxoren bila joango zan
izar baten gainean.

Atsegin izan jatzuez abesti hauek? Zein alai bat, eta zein sakona bestea! Abesti bi hauek, eta beste kanta eder asko, ARGOITIA neba-arrebak kantari dirala, diskoetan jarriak aurkituko dituzue.

Iru disko dira. Bakoitzaren prezioa 115.— peseta.

Nahi izatekotan, eskatu disko dentetan, eta ez euki ezkerero, distribuidore hauetara:

Iñaki Beobide — Narrica, 31, 1.º — SAN SEBASTIAN (tel. 20982)

Disco Club — E. Sotomayor, 19, 1.º — BILBAO-14 (tel. 358840)

GEA — María Díaz de Haro, 32, 3.º — BILBAO-10 (tel. 411805)

Instaladora General — Gran Vía, 18 — BILBAO-1 (tel. 246205)

CINSA — Av. Ejército, 18, 3.º — BILBAO-4 (tel. 355263)




IMPRENTA IDEAL

Bengoetxe - GALDAKANO

idazkirik onenen

zerbitzurako irarkola

Sony da
ametsaren izena



**Telebistarik
arinena,
Eskurakoiena
(Atzamar bategaz
eustekoa)**

SONY edozein tokitarako
da
SONY, 4 kilo terdikoa
SONY, 9 arrako pantai-
laduna
SONY, iru senti-giltza-
duna
SONY, aurrean jarritako
abots gehitzaileduna
SONY, tximist - indarrez
nahiz bateriaz
erabiltekoa
SONY,-k lau letra ditu:

SONY

Bilboko ordezkari: **J. M. Lara - Fica**, 8 - Tel. 23 96 42

Donostiako ordezkari: **A. Mendizabal Obanos** - Peña y Goñi, 5 - Tel. 10811

*Division Aud visual: Telebista aparatuak, magnetofono ta
videotape-rako orniduak.*

Division Sobax: Elektro kalkulatuzaile eskurakoiak.

BIZKAIKO AURRESTI KUTXAK Bilbon eta Probintzi guztian, laguntzarik zabalena
emoten dihardu gizarte preminetarako, eta osakuntza arloan laguntasunik jatorrena.

Zure dirugordetzerako:

Caja de Ahorros Vizcaina

Ofizinarik behinenak: Plaza de España, Bilbao
Teléfono 24 36 00 (bide ugariak) - 21 12 90
URIAN, 16 AJENTZIA

Probintziako erririk naguzienetan 70 etxeordezko
Madrileko ajentzia: I. C. C. A. Alcalá 27
Tel. 2 21 49 95

I. BERBAK

(Aie honetan izartxu bategaz agertzen diranak)

Bizkaierazkoak

ABEGI, *acogida*.
 ARROBI, *cantera de piedra*.
 ATRIKULU, *maña, artificio*.
 BAITERITXOE, bait deritxoe, erixten deutsoe ta.
 BEHINAGO, printzipalago.
 DOHAN, *gratis*.
 ERASO, *atacar*.
 ERESERKI, *himno*. (Itz barria).
 EROSO, *cómodo*.
 ESAMESA, *habladuría*.
 ESNATU, itzartu, itzarri.
 IGAZLEHEN, *año anterior al pasado*.
 INOAN, esaten eban.
 IRRATI, *radio*.
 ITSATSI, *pegar*.
 LELEGAI, *proyecto de ley*.
 LEHIAKETA, *concurso, competición*.
 MUKERTASUN, *resistencia, oposición*.
 OLA, lantegi, fabrika.
 OSTERA, *viaje*.
 UDAL, *ayuntamiento*.
 URDURI, *artega, inquieto, preocupado*.
 URREAN, nonbait, aurki, *probablemente*.

Euskera batukoak

ADITZ, *verbo gramatical*.
 ALBISTARI, *periodista, reportero*.
 ARI IZAN, jardun.
 BAITA, bait da, da ta.
 BAITAGOZ, bait dagoz, dagoz eta.
 BAITAKIGU, bait dakigu, dakigu ta.
 BAITIRA, bait dira, dira ta.
 BILDU, batu.
 EGONEN, egongo.
 EKAIN, bagil, *junio*.
 ESKAINI, eskini, eskeini, *ofrecer*.
 ETSAI, arerio, *enemigo*.
 HALABER, bardin.
 HELBURU, asmo, *fin, objetivo*.
 IGANDE, domeka.
 IZANEN, izango.
 JASAN, jaso, *aguantar*.
 LARUNBAT, zapatu.
 LAUDIO, *Llodio*.
 LEGUTIANO, *Villarreal de Alava*.
 LIZARRA, *Estella*.
 MEMENTO, momentu.
 MENDE, *siglo*.
 MORRONTZA, *servidumbre, esclavitud*.
 OSTEGUN, egueñ.



OSTIRALE, bariku.
 UKAN, izan.
 UZTAIL, garagarri, *julio*.
 ZENBAIT, batzuek.
 ZERGA, *impuesto, contribución*.
 ZIN, *juramento*.
 ZINEZ, benetan.

Beste euskalkietakoak

ALAJAINA, *alafedé, pardiez, por cierto*.
 EGUNKARI, eguneroko aldizkari.
 ERRESUMA, erreinu, estadu.
 ESKUALDE, *comarca*.
 KAZETARI, albistari, *periodista*.
 MENDEBAL, *occidente*.
 PERSONAIA, *personaje*.
 ZALANTZA, ezbai, duda.

II. IDAZTEKO MODUA

Txarto:

Modako erri batean bihurtu jaku Zornotza.
 Ez noa orain radikaltasun honen iturriak aztertzeraz, ezpabe abeslariak eskatzen jaken radikaltasuna apur bat azaltzeraz.
 Orduan inok, etorkizunari begira, munduko izkuntzarik zabalduenak zeintzuk izango ziran galdetuko baleuke, duda barik iru horreek aipatuko zituan.
 Amorotokoak lako baserritar asko bagendukez, euskeraz gehiago egingo litzake Euskalerrian.
 Hangoak eta hemengoak sarriago bilduko baginake, berez batuko litzake gure izkuntza.

Ondo:

Modako erri bat bihurtu jaku Zornotza.
 Ez noa orain radikaltasun honen iturriak aztertzeraz, abeslariak eskatzen jaken radikaltasuna apur bat azaltzeraz baino.
 Orduan inok, etorkizunari begira, munduko izkuntzarik zabalduenak zeintzuk izango ziran galdetu izan baleu, duda barik iru horreek aipatuko zituan.
 Amorotokoak lako baserritar asko bagenduz, euskeraz gehiago egingo litzake Euskalerrian.
 Hangoak eta hemengoak sarriago bilduko bagina, berez batuko litzake gure izkuntza.

AMABI ARRIETATIK

Abadiñoko Matiena auzunean, igaz lez aurtan bere ez dabe jairik ospatu.

Asentsioak doguz Andikonako jairik entzunenak. Aurtan bere, meza ostean, Izarra, Txoritxu Alai eta Tronperri dantzari taldeak eskaini* zituen euren saioak, baita erriko zaharrak be anak bizkortu, erregelak dantzatuaz.

Intxorta mediaren bizkarrean dagoan Asentsio ermitan be jaiak izan ziran. Eguraldia eskasa, eta Anboto tontorra edurrez zurituta agertu zan.

Arteta Mallabiko auzunean, nahiz eta alkatea ta gazteria jaiak antolatzeke batera egon, goragotik etorri zan ezetza.

Abadiñoko Mendiola auzunean lehenengoko agerketa egin eban bertako Alluitz dantza taldeak, il honen 3-an.

Ekainaren* 7-an, Txoritxu Alai-koak antolatuta, Umeen Irugarren Euskal Jaia izango dogu Durangon. Bezperan emongo jako asiera jaiari, tanborrada bategaz. Urrengo egunean, Euskalerrri guztitik etorritako 30 ume talde inguru eukiko doguz erria alaituten. Arratsaldeko 7-retan emongo jako bukaera Tabirako zelaian, Agur Jaunak abestuaz.

Durangoko Tabira Mendi alkarteak Txindokira ostera* bat antolatuta dauka ekainaren* 7-rako.

— o —

Jainkoaren atsedenera joandako Don Eduardo abade jaunaren lehenengo urteburua betetzen zala ta, Durangoko Irugarrendarrak omenaldi bat eskaini* eutsoen il honen 10-ean.

Goizeko 10-etan mezea. Amaitutakoan, Don Eduardok hainbeste buruaustez eta batzuen zitalkerien ginetik aurrera ateratako Tronperri dantza taldeko umeak saio labur bat eskaini eben bere gomutan.

Ondoren, itzaldi batzuekaz bere birtuteak eta egintza onak goratu ziran. Baina Durangoko gaztedia, harengandik hainbeste mesede lortu eban, ez ei zan inondik bere agertu. Ze arin ahaztuten garean, gure alde lan egitearren hainbeste ikusiezin eta salazino sufridu behar izan eban gizonagaz. Goian bego!

Joan Aroma

Aulestia

Alde guztietatik aurrerapenak, eta gero baino gero prisaz gehiago. Ezetarako astirik ez. Inora sasoz eldu ezin. Ohitura zaharrak galduaz doaz. Astirik ez dogulako ote da?

Aulestia zazpi auzune ditu eta, bat kendu ezkeraz, beste danak ditue ermitak. Ermita horreetara danetara egiten ziran ibilaldiak, santuen letainak abestuten zirala. Guztiak dakie ibilaldi honek Asentsio aurreko egunetan egiten zirala.

EZ ZAHARRIK EZ BARRIRIK

Horreetariko elizkizunetara ondo erantzuten eban jendeak. Orain zer gertatzen jaku? Dana aurrerapena, dana beharrak azkar egiteko errazpideak, dana automobila. Hailan ta guztiz bere, askok ezin dogu astirik artu horrelako enginkizunetarako.

Antzinako kristinau ohitura hau amaitzera doa. Elizgizonak letainak erriko eliza nagusian kantatzea erabagi dabe, ea gehiagok parte artu ahal izaten daben aurrerantzean.

JAIO

DURANGO ALDEA (3)



Izurtza

4,31 km.² ta 417 bizilagun. Bere auzoak: Elexalde (erriburua), Bitaño, Ortuzar eta Lexartza-Etxano. Elexaldean ba ditu ola* bi, eta beste andi bat, orain jasoteko. Lexartza-Etxanon, Arbisoloko ola zaharra gaurko erara jarrita dago, laminazino lanak egiteko. Auzo bi honeek industria poligonuak ditue, Gazteizerako bidearen ezker aldeko lauak emoten dauan besteko neurrian. Beste gainerakoa baserria izango da, gaurko moduan atzeratua, inor arduratzen ez bada. Iru torretxe, eder baizen gutxi zainduak, ditu Izurtzak bere barrutian: Beko-torre, Lexartza-torre eta Etxaburu-torre. San Nikolas elizan barrizatze egoki bat egin barria da; bere torrea guztiz kurioa, pintoreak, asi Zubiaurre eta beste askok, margoetara eroana.

Mañaria

17,69 km.² ta 759 bizilagun. Bere auzoak: Mañaria (erriburua), Aldebarrena, Aldegoina, Aldebarrieta eta Arrueta. Auzoak, baserri eta ganaduari lotuak dira; lehen artalde ugari zituen baina orain dozenerdi bat inguru bakarrik. Erri hau, Izurtza bezala, Gazteizerako bidean dago eta Urkiola aldatzaren asieran. Bere barrutian zortzi arrobi* ditu: Markomin-goikoa, Alperdo, Mutxate eta Sallobente arrizkoak dira, eta Azkondo, Iturrieta eta Azkoiti marmolezkoak. Horixe da bere aberastasun nagusia; nahiz eta lehen erriarenak izan danak, gero udalak* baso eta arrobi ugazaben artean banatu zituan. Erri honetako seme izan ziran Kapanagako Otxoa, eskualdeko* euskal idazlerik antzinakoa, eta Ebaristo Bustintza "Kirikiño", guda aurreko euskal idazlerik irakurriena, Villasantek bere "Historia de la Literatura Vasca"-n dinoskunez.

Elorrio

36,66 km.² ta 6.888 bizilagun. Udal hau erri bik osotua dago, batetik uriak Elorriok, eta bestetik auzoak, San Agustín-Etxebarria elexaldeak. 1630-erarte udal bi ziran; eta uria, elexaldeko lurren erdian enklabe bezala jarria, Don Tello Bizkaiko jaunak sortu eban 1356 urtean. Orain bere, parrokia bi ditu: urikoa eta San Agustín-Etxebarrikoa. Urrikoak auzo honeek artzen ditu: uria bera, Igueria, Gazeta, Urkitzuaran, Aldape, Berrio, Gaztañeta, Mendraka ta Zenita, San Agustín-Etxebarrikoak: San Agustín-Etxebarria, Aramiño, Berriozabal, Arauneta, Lekeriketa, Leitz eta Miota. Erri honetan antzinako ilobi zaharrak inon baino ugariago aurkitzen dira: Argiñeta, Miota, Mendraka, San Agustín, eta abar.

Baserria, landa ta mendi ederrekin, atzeratua dago, Bizkaiko beste edonon beste; ba dira, horregaitino, Urkitzuaran eta Igueria baserriarren alkarte erabarriko batzuek. Industria gehiena Urkitzuaran auzoan aurkitzen da: Funcor, I.R.E., Industrial Cerrajera, eta beste. Zenita alderantz bere, ba dira lantegi batzuek; eta, San Agustín-Etxebarria inguruan bere industria poligono zabal bat aurkitzen da.

Bizkai guztian ez da Elorri bestea aundiki jauregi izango, arlandu ta armarrri galantekin. Ba dago etxe horreetan lekua, gauza asko egiteko, urtean ilabete pare bat udan egiteko ez ezik!

Balentin Berrio-Otxoa, erriko seme doatsua, santu izatera ez da eltzen, Vaticanoarentzat Avila ta Elorriok esku-bide bardinak ez dituelako nonbait, edo, gaurko Vietnamen il ebela ta, Vietcong-en alde jokatu ote leuken susmoa egon leitekkelako.

J. L. Lizundia

IRAKASKINTZAREN DEMOKRATIZAZINGA

Gobernuak Cortes-etan agertutako Irakaskintza Legegaiaren* elburuen* artean, irakaskintzaren demokratizazioa da, nire ustez, garrantzitsuenetarikoa.

Gobernuaren asmoak lortzen baldin badira, Espainiako ume guztiak bardinak izanen* dira aurrerantzean, irakaskintza sailean. Aberatsak eta pobreak oportunitade berrak bardinak izanen ditue, hemendik aurrera lehen mailako ikaskintzak ez baitira* ordainduak izango. Estatuak bere pentzutan artuko dau ikasle guztien kontuak pagatzea.

"Colegio" izen dotorea daben eskolarik onenetara, dirudunen umeak baino ez euen joaterik. Besteak "escuela pública" deritxonera joan behar. Orain eskola guztiak "erriko eskolak" izanen* dira, diru maila guztietako ikasleei atek zabalduko jakez eta.

Zelan ez txalotu Gobernuaren asmoak? Pobreen seme-alabak, aberatsenak baizen argiak dira, eta batzuetan gehiago, behartasunak adimena zorrotzu ohi dau ta. Ondo dago, alajaina*, irakaskintza saileko diskriminazioa kentzea!

Halan bere, lan honek oztopo batzuek aurkituko ditu nonbait; eta komeni da hau jakitea, jendea kikildu ez daiten, gauzak nahiko geunken baizen azkar ibiltzen ez badira.

Lehenengo oztopoa, diruaren aldetik izanen* da. Lehen mailako irakaskintza guztia ordaintzeko, diru asko behar da; eta Gobernuak bere presupostuetan elburu* hori sartzea, gauza gatxa izanen da oraingoz. Dirudunak pobreen irakaskintza ordaindu daien, zerga* barriak ipini beharko dira; esta hau ez da egun bateko arazoa izango.

Baina, nire ustez, irakaskintzaren demokratizaziorako eragozpenik aundiena ez da alde horretatik etorriko, klase prejuizioetatik baino.

Aundikiak eta aundiki ametsak dituenak ez dabe euren seme-alabarik erango pobreekin nahastatzera.

Lantegitxo bat zabaldu dauan gizonaren andreak, edo enpresa batean enplegu on bat lortu dauanarenak, holango zerbait esango dabe asarraturik, legegaiaren* barria jakiten dabenean: "Zer uste dabe, gero? Gure alabatxoa atezainaren alabarekin eskolara joango da ala? Pentsatu be! Eziera makala emongo geunskio gizaixoari! Berba txarrak esaten etorriko litzakigu etxera! Eta gero, zeintzuk izanen* dira bere adiskideak, zeintzuk bere errelazioak? Ez, umea, ez. Komunistak sartu ote dira Gobernu barruan?"

Horixe da, tamalez, jende askoren mentalidadea, orainarte eskoletan klase mentalidadea eratu baita*, eta oso gatxa izanen* da dana gauetik egunera aldatzea. Amaika atrikulu* asmatuko dira, legea burlatzeko!

Dana dala, lehenengo pausua egin dau Villar Palasí ministruak; eta zeredoz ergingo da bide on honetatik. Nire eritxiz, demokratizaziozko asmo honek txalo bero bat merezi dabe.

Karlos Santamaria